

## **ESK, CGT, SOLIDARI eta STEILAS sindikatuok salatzen dugu baimena ukatu digutela Maiatzaren 1a dela-eta agerpen publiko bat egiteko.**

**ESK, CGT, SOLIDARI eta STEILAS sindikatuok elkarrekin ospatzen dugu maiatzaren 1a aspaldi.** Ekintza-batasun horri eutsi diogu, beste eragile sozial eta sindikal batzuekin batera, sindikatu gisa bereiz gaitzakeenaren gaineratik, klaseko elkartasuna eta batzen gaituena jarriz.

Maiatzaren 1ean, berriz ere, **lau sindikatuok lanean ari gara** ekintza-batasun hori irudikatzeko, eta **badakigu horrek bere mugak izan ditzakeela, bizi dugun egoeragatik.** Argi dago maiatzaren 1ean guztiz ezinezkoa izanen dela aurreko eskemekin mobilizaziorik egitea, eta hori hasieratik baztertu dugu; **hala ere, uste dugu osasun-alertak ezin dituela oinarrizko eskubideak eragotzi, ezta langileak gehiago isilarazi ere.**

Kontuan harturik kinka larrian gaudela, **ESK, CGT, SOLIDARI eta STEILAS sindikatuok, apirilaren 10ean baimena eskatu zioten Espainiako Gobernuak Nafarroan duen Ordezkaritzari, ekitaldi sinboliko bat egiteko Baratxurien plazan** (guretzako ohiko bilera-puntua maiatzaren 1ean). Arduraz eta egoki jokatzeko, **6 pertsona baizik ez ziren joanen ekitaldi horretara, jendearen arteko gutxienerako tartearik errespetatuz eta segurtasun-neurri guztiak erabiliz.** Geroztik, eskaera egin zenetik, harremanetan egon gara Gobernuaren Ordezkaritzarekin, eta **apirilaren 27an eskaera horri ezezkoa eman zaio.**

**ESK, CGT, SOLIDARI eta STEILAS sindikatuok salatzen dugu gure ustez oinarrizko eskubideak urratzen direla,** are gehiago sindikalistok funtsezko zerbitzua **garen aldetik eta gisa horretara hartu gaituzten honetan,** Madrilgo Gobernuaren lehen Errege Dekretua argitaratu zenetik. Ebazpen hori bereziki onartezina iruditzen zaigu langileak lantokietara joatera behartzen dituztenean, ezinbestekoak ez diren lanak egitera kapitalari eusteko, beren bizitza eta guztiena arriskuan jarriz. Horri gehitu behar zaio apirilaren 26tik haurrak egunean ordubetez atera daitezkeela kalera pertsona heldu batek lagunduta, eta aurreikusita dagoela maiatzaren 2an denbora mugatuan ariketa egitera atera ahal izatea. Argi dago, beraz, **agintariak ez dituela kezkatzen birusaren hedapenak, baizik eta sistema kriminal hori zalantzan jartzen duten mezuen hedapenak.**

Ebazpen hau ikusita, argi eta garbi neurrigabea eta onartezina baita, **ESK, CGT, SOLIDARI eta STEILAS sindikatuok bidegabekeria hau salatzeko neurri judizialak hartuko ditugu.**



## **Los sindicatos ESK, CGT, SOLIDARI y STEILAS denunciamos la denegación de permiso para realizar una aparición pública con motivo del 1º de mayo.**

Como es habitual ESK, CGT, SOLIDARI y STEILAS celebramos de manera conjunta el 1º de mayo. Una unidad de acción que hemos mantenido, junto con otros agentes sociales y sindicales, **por encima de las diferencias** que podamos tener **anteponiendo siempre la solidaridad de clase** y lo que como sindicatos nos une a lo que nos pueda separar.

Este 1º de mayo, una vez más, **los cuatro sindicatos estamos trabajando** para escenificar esta unidad de acción **siendo muy conscientes de que la situación que estamos atravesando hace que esto pueda tener sus limitaciones**. Es más que evidente que este 1º de mayo va a ser del todo imposible llevar a cabo ninguna movilización con esquemas anteriores y esto es algo que hemos descartado desde el principio, **sin embargo creemos que esta alerta sanitaria no puede impedir derechos fundamentales ni amordazar aún más a las trabajadoras y trabajadores**.

Entendiendo que la situación que estamos atravesando es complicada **ESK, CGT, SOLIDARI y STEILAS solicitó a la Delegación Del Gobierno en Nafarroa a fecha de 10 de abril permiso e para realizar un acto simbólico en la Plaza de los ajos** (punto habitual de reunión para nosotras el 1 de mayo). Acto al cual por responsabilidad y sentido común, solo acudirían **un máximo de 6 personas, respetando la distancia social y haciendo uso de todas las medidas de seguridad a nuestro alcance**. Durante este periodo, desde que se formalizase la solicitud, se ha estado en contacto con **Delegación del Gobierno y a fecha de 27 de abril ha sido denegada dicha solicitud**.

ESK, CGT, SOLIDARI y STEILAS queremos denunciar lo que entendemos es una clara **vulneración de los derechos fundamentales** más si cabe cuando las y los sindicalistas **somos y hemos sido consideradas** desde que se hiciera público el primer RD del Gobierno de Madrid **servicio esencial**. Especialmente inaceptable nos resulta esta resolución cuando trabajadoras y trabajadores están siendo obligados a acudir a sus centros de trabajo a realizar trabajos no esenciales para sostener el capital poniendo en riesgo su vida y la de todas y todos. A esto hay que añadir que desde el 26 de abril las niñas y niños pueden salir durante una hora a las calles acompañadas por una persona adulta y que está previsto que el día 2 de mayo se pueda salir a hacer ejercicio a las calles durante un tiempo limitado. Es evidente por lo tanto que lo que **lo que realmente les preocupa a las autoridades no es tanto la propagación del virus como la propagación de mensajes que cuestionen este sistema criminal**.

Ante esta resolución a todas luces desproporcionada e inaceptable ESK, CGT, SOLIDARI y STEILAS tomaremos las medidas judiciales oportunas para denunciar este atropello.

